2024ko ekainean erregistratutako langabezia

2024ko ekainean, LANBIDEren bulegoetan erregistratutako langabeen kopurua 55tan baino ez da murriztu, hau da, % 0,05 jaitsi da, eta guztira 106.367 pertsona daude erregistratuta. Murrizketa hori oso txikia da ekain batentzako, normalean, hil honetan, jaitsiera nabarmenagoak jasotzen dira erregistratutako langabezian.



	eka.-10	eka.-11	eka.-12	eka.-13	eka.-14	eka.-15	eka.-16	eka.-17	eka.-18	eka.-19	eka.-20	eka.-21	eka.-22	eka.-23	eka.-24
Saldoa	-3.283	-3.933	-2.828	-4.205	-7.103	-4.602	-3.588	-2.967	-2.316	-2.530	2.733	-259	-1.710	-1.896	-55

Urte arteko saldoari dagokionez, hileko bilakaeran ikusten da igoera hori, 988 langabetu gehiago baitaude iazko ekaineko kopuruekin alderatuta. Egiturazko langabeziaren pisua gero eta handiagoa da eta, ondorioz, erregistratutako langabeziaren bilakaera positiboa izatea zailtzen ari dela egia bada ere, bereziki kezkagarria da ekain honetan langabeziak urte artekoan izan duen hazkundea. Nolanahi ere, datozen hilabeteetako portaera aztertu beharko da, gertaera puntual bat den edo sakonera handiko aldaketa bat den zehazteko.

Gaur egun erregistratutako langabeen kopurua 72.974 txikiagoa da 2013ko martxoko maximo historikotik, 2008an hasitako krisiaren unerik txarrenean. Gaur egun, 2007ko ekainean baino 35.412 langabe gehiago daude, orduan erregistratu zen azken hamarkadetako gutxieneko historikoa.

Beste ekain batzuen balio maximo eta minimoei dagokienez, 2024ko ekaineko langabeen kopurua 67.646 txikiagoa da 2013ko ekainarekin alderatuta, eta 35.412 handiagoa 2007ko ekainarekiko.



• SEXUA

Sexuaren araberako datuak kontuan hartuta, hilabete honetan 423 gizonezko langabe gutxiago izan dira (-%0,94), eta 368 gehiago emakumeen artean (% 0,60 gehiago). Urteko bilakaeran, bi sexuetan langabeen kopuruak gora egin duen arren, emakumeen portaera hobea da (+334, +%0,54) gizonen artean baino (+654, +%1,49).

• ADINA

Datuek erakusten dute langabeziak behera egin duela 30 urtetik gorakoen artean, eta 45 urtetik gorakoek izan dute portaera onena hileko datuetan (-185 pertsona, % 0,31ko beherakada). Aitzitik, 30 urtetik beherakoena da hileko saldoa igo duen kolektibo bakarra da; 139 pertsona gehiago zenbatu baitira adin tarte honetan, hau da, % 0,82ko igoera aurreko hilaren aldean. Igoera hori, batez ere, 30 urtetik beherako emakumeen gorakadak eragin du.

Urte arteko saldoan, halaber, 30 urtetik beherako gazteak dira bilakaera-daturik txarrena dutenak, aurreko urtean baino 999 pertsona gehiago baitaude. Aitzitik, 30 eta 45 urte bitarteko pertsonen taldea da, -363 pertsonako urte arteko saldoarekin (% 1,18ko murrizketa), langabeziak behera egin duen talde bakarra 2023ko ekainarekin alderatuta.

• JARDUERA EKONOMIKOA

Datua sektoreka aztertuz, hilabete honetan guztietan murriztu da langabezia, zerbitzuetan izan ezik, 285 langabe gehiago zenbatu baitira.

Gainerako sektoreei dagokienez, nabarmendu behar da portaera ona izan dutela, bai hileko eta bai urte arteko saldoetan. Hileko eta urte arteko saldoan, industria sektorean izan da jaitsierarik handiena; hileko saldoan % -2,05ekoa izan da (-208 pertsona) eta urte arteko bilakaeran % -2,16koa, hau da 219 langabe gutxiago.

Hilabete honetan, Egoitza-establezimenduetako laguntzan eta Txikizkako merkataritzan izan dira jaitsierarik handienak langabeen kopuruan.

Aitzitik, Hezkuntza eta Edarien Zerbitzuak dira portaerarik txarrena duten jarduerak.

Aurreko urteko egoerarekin alderatuta, aurretik enplegurik ez duten pertsonak eta Etxeko unitateak etxeko langileen enplegatzaile gisa, dira bigarren hilabetez jarraian sailkapeneko lehen postuetan daudenak urte arteko langabezia igoeran. Gauza bera gertatzen da urte arteko konparazio onena duen jarduerarekin, hau da, finantza-zerbitzuekin; hirugarren hilabetez jarraian izan dute urte arteko portaera onena.

Xehetasun-maila handiagoz, azken hilabetean langabeziak behera gehien egin duen jarduerak hauek izan dira:

	87 Egoitza-establezimenduetako laguntza	-334	
o	47 Txikizkako merkataritza		-222
o	81 Eraikinetarako zerbitzuak eta lorezaintzako jarduerak		-177
o	86 Osasun-jarduerak		-151

Erregistratutako langabeziaren igoeragatik nabarmentzen diren jarduerak:

o	85 Hezkuntza	581
o	56 Janari- eta edari-zerbitzuak	510

o 84 Herri Administrazioa eta defentsa; Derrigorrezko Gizarte Segurantza 262

• LANGABEZIAREN IRAUPENA

Hilabete honetan zehar iraupen luzeko langabezia 26 pertsonatan murriztu da; epe motzekoa, berriz, 29 pertsonatan. Iraupen luzeko langabeen kopurua guztizkoaren % 50,5 da.

Termino erlatiboetan, urteko erreferentzian, epe luzeko langabeen kolektiboak gora egin du, 912 pertsona gehiago baitaude (+ % 1,7), eta iraupen laburreko langabeen kolektiboak ere gora egin du (% 0,14ko hazkundea eta 76 langabe gehiago).

Iraupen luzeko langabeen profil nagusia emakumea, bizkaitarra eta 44 urtetik gorakoa da. Azken hilabeteko bilakaera erlatiborik onena gizonei, 30-44 urteko pertsonei eta Araban bizi diren pertsonei dagokie. Iazko datuekin alderatuta, nabarmentzekoa da iraupen luzeko langabeziaren igoera 30 urtetik beherakoen artean (+382, +%8,1), emakumeen artean (+560, +%1,7), Bizkaian bizi direnen artean balio absolutuetan (+586), eta Gipuzkoan balio erlatiboetan (% 4,1).

• LANGABETUEN KOKAPEN GEOGRAFIKOA

Hil honetan, maiatzarekin alderatuta, Araba nabarmentzen da langabeen kopurua murriztu den lurralde bakarra izateagatik (-167 pertsona, -% 0,92). Gipuzkoan eta Bizkaian igoera txikia izan da (+% 92, +% 0,33) eta (+% 20, +% 0,03), hurrenez hurren.

Urte arteko saldoan, Araba da langabeen kopuruak behera egin duen lurralde bakarra (-630 pertsona, -% 3,40). Bizkaian izan da hazkunde absoluturik handiena, 1.002 pertsona gehiagorekin (+%1,69). Ondoren Gipuzkoa dator, hazkunde erlatibo handienarekin (+%2,23), non 616 langabe gehiago dauden.

Hilabete honetan, langabeziak gora egin duen euskal hiriburu bakarra Donostia da, 79 langabe gehiagorekin (+%1,21). Vitoria-Gasteizek izan ditu murrizketarik esanguratsuenak, bai hil artekoan (-145 pertsona, -%1,03ko murrizketa) zein urte artekoan (-40, -%0,29). Bilbok 81 langabe gutxiago ditu hileko saldoan; urte arteko saldoan, aldiz, 323 langabe gehiago ditu.

Ekainean langabezia-tasa handienak izan dituzten udalerriak Lanestosa (% 16,52), Armiñon (% 15,38), Sestao (% 15,35), Amurrio (% 14,47) eta Ortuella (% 13,96) izan dira.

• LANGABEZIA-PRESTAZIOA

2024 ekainean, 34.076 langabek, aurreko hilean baino 446 gutxiagok, langabezia-prestazioren bat jasotzen dute. Gaur egun, langabeen % 32,0k langabezia-prestazioren bat jasotzeko eskubidea du. Langabeen % 17,6k (18.731 pertsona) kotizaziopeko prestazioa jasotzen dute eta % 13,28k (14.124 pertsona) langabezia-subsidioren bat kobratzen dute. Lurralde historikoen arabera, Gipuzkoa da babes handieneko lurralde historikoa (% 34,7ko tasa), Bizkaian tasa hori % 31,4koa da eta Araban % 29,9koa.

Aurreko hilabetearekin alderatuta, langabeziagatiko estaldura-tasa 0,40 puntu jaitsi da, eta 0,33 puntu jaitsi da iazkoarekin alderatuta.

• JATORRIA

Guztira 19.859 atzerritar daude langabezia egoeran, hau da, guztizkoaren % 18,9. Maiatzaren aldean, langabeziak % 1,32 egin du behera atzerritar jatorriko pertsonen artean. Urte arteko bilakaeran atzerritar jatorriko langabeen kopuruak % 8,69 egin du gora, aldiz, espainiar nazionalitatea dutenen artean % 0,69 egin du behera.

Atzerriko langabeen % 32,1 Afrika iparraldetik datoz, % 27,2 Latinoamerikatik, % 15,7 Europako Esparru Ekonomikotik, % 11,6 Saharaz hegoaldeko Afrikatik eta % 6,4 Asiatik.

• IKASKETA MAILA

59.655 langabek, guztien % 56,1ek, asko jota derrigorrezko ikasketak dituzte. Azken hilabetean, oinarrizko prestakuntza maila hau duten 465 pertsona gutxiago daude langabezian, hau da, % 0,77 murriztu da. Azken urtean, langabeziaren gorakada % 0,65ekoa izan da derrigorrezko ikasketak dituztenen artean (388 pertsona).

Batxilergoa duten langabetuak langabe guztien % 7,7 dira. Azken hilabetean -% 0,44 jaitsi dira eta azken urtean, % 3,19ko gorakada izan dute.

Lanbide Heziketako ikasketak dituzten langabetuak 26.393 dira, guztizkoaren % 24,8. Hil honetan 24 pertsonako saldo positiboa izan da ikasketa maila honetan eta iazko ekainarekin alderatuta, % 3,43 hazi da.

Azkenik, % 11,4k (12.106 pertsona) unibertsitate-ikasketak ditu; hilabete honetan langabezia % 3,61 hazi da, hau da, 422 langabe gehiago. Ikasketa-maila hori duten langabeak dira urte arteko langabezian behera egin duen talde bakarra, % 4,19ko jaitsiera izan baitute.

• KONPARAKETA ESTATUKO DATUEKIN

Estatuan langabezia % 1,79 jaitsi da, 58.650 pertsona gutxiago, eta erregistratutako 2.561.067 langabetu daude guztira; EAEn, berriz, erregistratutako langabezia % 0,05 murriztu da. Nafarroan % 1,53 jaitsi da, Errioxan % 2,86, Kantabrian % 2,81 eta Gaztela eta Leonen % 3,57. Katalunian % 1,85 jaitsi da eta, azkenik, Madrilen % 1,87koa izan da beherakada.

Lan-eskatzaile langabeak 2024ko ekainean

	Eka-2024	Mai-2024	Saldoa	Bil %
SEXUA:				
GIZONEZKOAK	44.694	45.117	-423	-0,94
EMAKUMEZKOAK	61.673	61.305	368	0,60
25 URTEZ AZPIKOAK:				
GUZTIRA	16.988	16.849	139	0,82
GIZONEZKOAK	8.442	8.484	-42	-0,50
EMAKUMEZKOAK	8.546	8.365	181	2,16
25-44 URTE:				
GUZTIRA	30.421	30.430	-9	-0,03
GIZONEZKOAK	11.477	11.699	-222	-1,90
EMAKUMEZKOAK	18.944	18.731	213	1,14
45 URTEZ GORAKOAK:				
GUZTIRA	58.958	59.143	-185	-0,31
GIZONEZKOAK	24.775	24.934	-159	-0,64
EMAKUMEZKOAK	34.183	34.209	-26	-0,08
SEKTOREA:				
NEKAZARITZA ETA ARRANTZA	1.922	1.941	-19	-0,98
INDUSTRIA	9.937	10.145	-208	-2,05
ERAIKUNTZA	5.928	6.031	-103	-1,71
ZERBITZUAK	74.395	74.110	285	0,38
AURREKO ENPLEGURIK GABE	14.185	14.195	-10	-0,07
LURRALDE HISTORIKOA:				
ARABA	17.914	18.081	-167	-0,92
BIZKAIA	60.247	60.227	20	0,03

GIPUZKOA	28.206	28.114	92	0,33
EAE	**106.367**	**106.422**	**-55**	**-0,05**

ESKUALDEKO BILAKAERA

	Langabetuak	Erregistratutako langabezia indizea	Aurreko hilabetea		Aurreko urtea	
			Saldoa	Bil %	Saldoa	Bil %
Bajo Bidasoa	3.711	9,8%	29	0,79	127	3,54
Oarsoaldea	3.218	8,6%	-26	-0,80	62	1,96
Donostia-S.Seb.	6.603	7,4%	79	1,21	228	3,58
Donost.Oeste	2.860	7,3%	70	2,51	90	3,25
Tolosaldea	1.776	7,3%	-26	-1,44	-42	-2,31
Urola Erdia	1.130	7,2%	11	0,98	-38	-3,25
Goiherri	1.614	7,5%	-5	-0,31	75	4,87
Alto Deba	2.246	7,4%	7	0,31	-27	-1,19
Bajo Deba	2.642	10,0%	5	0,19	71	2,76
Urola Garaia	1.063	8,7%	-30	-2,74	45	4,42
Urola Kosta	1.343	5,7%	-22	-1,61	25	1,90
GIPUZKOA	**28.206**	**7,9%**	**92**	**0,33**	**616**	**2,23**
Vitoria-Gasteiz	13.928	10,8%	-145	-1,03	-40	-0,29
Valle de Aiala	2.069	10,9%	5	0,24	32	1,57
Rioja Alavesa	537	9,3%	-14	-2,54	7	1,32
LLanada Alavesa	673	8,9%	10	1,51	-4	-0,59
Estrib. Gorbea	275	5,5%	3	1,10	-15	-5,17
Valles Alaveses	371	7,1%	-24	-6,08	-12	-3,13
Montaña Alavesa	103	6,2%	-4	-3,74	11	11,96
ARABA	**17.914**	**10,5%**	**-167**	**-0,92**	**-630**	**-3,40**
Gobela	4.201	8,1%	28	0,67	57	1,38
Txorierri	1.990	8,5%	20	1,02	50	2,58
Uribealdea	2.751	7,8%	14	0,51	61	2,27
Duranguesado	3.054	8,1%	16	0,53	103	3,49
Busturialdea	1.910	8,6%	-6	-0,31	7	0,37
Lea-Artibai	791	6,6%	-6	-0,75	-63	-7,38
Encartaciones	1.831	11,5%	-45	-2,40	-1	-0,05
Arratia-Zornotza	1.368	7,7%	7	0,51	25	1,86
Medio Nervion	1.237	9,3%	-11	-0,88	1	0,08
Bilbao	20.981	12,3%	-81	-0,38	323	1,56
Margen Izquierda	15.914	12,6%	39	0,25	443	2,86
Ibaizabal	4.176	10,1%	47	1,14	5	0,12
BIZKAIA	**60.247**	**10,6%**	**20**	**0,03**	**1.002**	**1,69**
CAPV	**106.367**	**9,7%**	**-55**	**-0,05**	**988**	**0,94**

* Bizkaia eta Arabako eskualdeen batura ez dator bat lurraldeko totalarekin, Orduña udalerria Bizkaikoa izanik Arabako Aialako Ibarra eskualdean kokatzen baita.